

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA - EUSKALTZAINDIA

Bilbo, 1996-06-27

*Josu Bergara,
Bizkaiko diputatu nagusia*

Euskaltzainburu jauna,
Euskaltzainak,
Jaun-Andreak.

No puedo negar que me produce una gran satisfacción recibir hoy de manos del presidente de Euskaltzaindia, estos CD-ROM que simbolizan la materialización de un proyecto de colaboración entre estas dos Instituciones.

Para la Diputación Foral de Bizkaia constituye una preocupación constante todo lo relacionado con el ambito del euskera, procurando, consecuentemente, impulsar dentro de la propia casa acciones y programas que procuren la formación lingüística de los empleados forales así como el fomento del uso del euskera a nivel interno.

Por otra parte, la Diputación Foral de Bizkaia siempre ha mostrado una gran sensibilidad hacia el trabajo realizado con rigor y seriedad por Euskaltzaindia Y sin ningún género de duda el trabajo que se ha efectuado en la realización del Atlas Lingüístico de Euskal Herria es un trabajo ingente que nunca antes se había realizado en este pueblo, como así lo reflejan las 4.000 horas de grabación recogidas en 2.400 cintas de las 2.800 cuestiones que a cada entrevistado se le han realizado y todo ello en 145 pueblos de Iparralde y Hegoalde.

Evidentemente no podíamos permitirnos el lujo de que todo este enorme trabajo, este tesoro lingüístico, no constituyese un legado para el futuro por no poner los medios adecuados, que gracias al desarrollo de la tecnología disponemos hoy día, para que se conservase con la calidad de grabación precisa.

Este tesoro llamado Atlas Lingüístico que recoge el léxico, la morfología y las peculiaridades orales de los dialectos del euskera recogidos en grabaciones hechas "in situ" constituye un material valiosísimo para la comunidad universitaria y para los estudiosos de la lengua de ahora y un referente imprescindible en el futuro.

Por lo tanto, esta Institución a la que represento se siente muy satisfecha de poder colaborar en un proyecto de esta envergadura y al mismo tiempo quiero felicitar a nuestra Academia por el gran trabajo, además de forma brillante, que ha realizado.

Zorionak eta eskerrik asko.

EUSKARAREN HIZKUNTZA ATLASEKO SOINUZKO CD-ROMen AURKEZPENA, BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAN EGINA

1996-06-27

*Beñat Oihartzabal,
Dialektologia-Atlasgintzako
batzordeburua*

Agur denei,

Euskaltzainburuaren ondotik, nik ere, batzordeburu gisa, eskerrak bihurtu nahi dizkiet CD-ROM horien egiteko ahala eskaini duten guziei, eta lehenik noski, egun errezebitzen gaituen eta programa hau finantzatu duen Bizkaiko Diputazioari, bai eta CD-ROM horien egitea teknikoki bere gain hartu duen *Aurten Bai* fondazioari ere.

Euskaltzaindiak badu orain eskuen artean altxor linguistiko bat, balio handikoa, ez baita dudarik geroko ikertzaileek aurkituko dutela hartan dokumentazio guziz aberatsa, denbora joaitearekin euskararen aurpegi desberdinak aldatu arau, gero eta baliosagoa izanen dena. Ezen zinta magnetikoetan bildua CD-ROMetan emanik, modu egokian segurtatuak dira aldi luze batentzat inkestatzaileek jasoriko lekukotasunak.

CD-ROMen aurkezpen honek egungo teknikak soinuazko dokumentuen artxibatzeko eskaintzen dituen bide berrien goastera gakartza, eta gogotik egiten dugu segurki, arras ondorio onak izan baititu gure ustez *Aurten Bai* fondazioaren eskutik egin den lanak. Laster zuihauk zuen belarriez egiaztatzen ahalko duzue hala dela egiazki.

Haatik, teknika mota horrek aitzinamenduak eginarazten baditu, ez dezagun ahantz berez antzu dela, eta aurretik eman izan zitzaiona baizik ez dezakeela gibelera itzul, modu eskuragarriagoan eta balia-errazagoan bai, baina deus ere berririk ekarri gabe. Mamia da lehen, honetan ere. Horrengatik, euskarri berri horien moldatu dutenekin batean, uste dut komeni den ororen eskerrak har ditzaten inkesta horien egiteko Euskal Herria alderdi guzietarik kurrituz ibili diren lankideek (1), bai eta herrietan haiekin lanean ari izan diren informatzaileek, izigarriko pazientzia eta jarraikimena behar izan baitute denek 4200 oren horiek zintetan emaiteko.

Solasa CD-ROMetara berriz ekarriz, derragan hemen bi kopia egin direla soinuazko CD-ROMetan. Batean, zinta magnetikoetan grabaketa analogikoetan bildutakoa oso-osoarik jaso da grabaketa zenbakitua baliatuz. Kualitate handiko grabaketa da, erran nahi baitu iturri-zintetako soinuaren osotasuna errespetatzen duela alderdi guzietan. Altxor

(1) Inkesta egiten ibili diren lankideak: Isaak Atutxa, Gotzon Aurrekoetxea, Xarlex Videgain, Ana-Mari Etxaide, Jose Maria Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Seguroa.

corpusa erraiten diogu, zeren hartan biltzen baita gaineratiko lan guzien oinarria. Erraldoia da, ordea, kopia hori, 2600 CD-ROM betetzen baititu orotara.

Horregatik, egoki iduritu zaigu honen ondoan egin zedin beste bat, ez hain kualitate handikoa, baina balia-errazagoa gerta zekiokkeen jendeari. Bizkaiko diputazioak proiektuaren alderdi berri hau onetsi baitu eta finantzatu, bigarren kopia horretan giza belarriarentzat hizkuntza ahotsen elkarretarik bereizteko beharrenik den soinu informazioa atxikitzen da xoilik, hura ahal bezain toki hertsian emanez. Gisa horretan 14 aldiz ti-piago den tokia hartzen du bigarren bertsioak, eta corpus guzia 180 bat CD-ROMetan bildurik dago hartan. Kontsulta corpusa erraiten diogu horri, eta hemendik aitzina Euskaltzaindiko bibliotekan kontsultatzen ahalko dute ikerketariak. Jasandako murrizketaren gatik aski ona da kopia hau ere, eta xixtukari eta aspiratuen akustikako ikerketa berezien egiteko ez bada, pentsatzen dugu ikertzaileen eta hizkuntzalarien beharrak ase-tuko dituela.

Egungo aurkezpenaren karietara, bestalde, euskararen atlasari dagokion beste alderdi tekniko bat ere aipatuko dizuegu, oinarrizko programaketa informatikoa aurkeztuz. Alabaina G. Aurkeoetxeak, X. Videgainekin batera hastapenetik proiektu honen bideratzaile izan denak, erakutsiko dizue pantailetan nola baliatzen ahalko diren hemendik aitzina, ez belarri oraingoan baina begiz, atlaseko lanak.

Hastapenetik pentsatu zuen atlasgintzako batzordeak, inkestetako emaitzak grafia-ara pasatu arau euskarri informatiko batean ere eman beharko zirela, ondotik tratamendu automatikoak eskaintzen dituen aukerez baliatu ahal izateko. Ordean, ez da atlasekoa nolana-hiko datu basea, eta horretarako programa berezi bat moldatu behar izan zen, EJIIE erakundeak, atlaseko ikertzaileekin lankidetzan ari izanez, moldatu zuena. Bi-hoazkio informatika etxe horri ere gure eskerrak. Programa hori datuen jasotzeko egina izan zen orduan, ez haien esplotatzeko eta are gutiago haietarik mapen ateratzeko. Ezen orduan mikroinformatikak ez zituen eskaintzen zenbait urte geroago ematen dituen ahalak, eta gerorako utziak izan ziren urrats horiek.

Lan luzea, oso luzea, da inkestean ondorioak datu base automatikoan sartzea. Lau lankide denbora osoz horretan ari izanez joan den urrian bakarrik bukatu da bigarren ataleko datuen sartzeko lana, beste hiru ataletako datuak gelditzen zirelarik oraino sartzeko. Alabaina, jakiteko da herri bakoitzean eginak izan diren 2867 galderen erantzunak bost ataletan banatuak izan direla, eta 1995eko urrian milako bat galdera bazirela datu basean sartuak.

Lankideak, bai eta jendeak ere, jakin-minez zeuden aspaldi honetan jadanik sartutako galderak zer ondorio emaitzen zuten, eta nola agertzen ziren emaitzak, herri guzietako ihardesprenak gurutzatzen zirelarik. Horrelakorik ezin egin zitekeen ordean, ez programak, ez tresnek —ordurako guziz zaharkituak baitziren hauek, eta ahalmenik gabekoak— ez baitzuten biderik ematen herrika bildurikoa galderaka antolatzeko. Hitz batean erraiteko, informatikako programa eguneratu behar zen eta tresneria guzia ere aldatu, datuak atlas batean nahitaez behar den bezala modu konparatiboan antolatzeko.

Aurten egin ahal izan ditugu urrats horiek, eta egun lehen emaitzak —lehen ezin ikus zitezkeenak— jendeari erakusteko moduan gaude. Eguneratze lan hori ere *Aurten Bai* fondazioak bideratzen ari du teknikaren aldetik, eta orain eginen zaizuen erakusketan ikusten ahalko duzuen bezala ongi jabetu dira gure lehenbiziko beharrez.

Nornahik minutuaren barnean edozein galderari buruz edozein inkesta-herritako erantzunak, bildutako xehetasun guziekin, jasotzen ahal ditu pantailan. Noski, erantzunak ez dira oraindik tratatuak eta landuak izan, mapak bereziki ez dira eginak izan, eta beraz dokumentazio gordin-gordina da hor bildurik dagoena. Hain zuzen esperantza dugu negu honetan, horretarako programa egokia egina izaten denean, ekiten ahalko zaizkiola bi batzordekide lehen bi ataletako datuen elaboraketari.

Baina eleak baino hobeki obrak mintzo baitira, utz diezaiodan orain hitza G. Aurrekoetxeari, lehenbiziko mila galderen erantzunekin lehen etapa honen bukaeran gauzak nola agertzen diren harekin ikus dezazuen.

Milesker.

EUSKARAREN HIZKUNTZA ATLASA: ZENBAIT EZAUGARRI

1996-06-27

Beñat Oihartzabal

NON EGIN DIREN INKESTAK

145 herritan egin dira inkestak, herri bakoitzean galdera berak eginez lekuko bati:

Bizkaia:	36		
Araba:	01		
Gipuzkoa:	36		
Nafarroa:	27→	Hegoaldean:	100
Lapuri:	15		
Baxenabarre:	18		
Zuberoa:	12→	Iparaldean:	45

ZENBAT GALDERA EGIN DIREN

2.857 bat galdera egin dira herri guztietan.

Gehienak lexikoari buruzkoak dira galdeak, baina 530 bat badira morfosintaxiari dagozkionak.

ALTXOR FONIKOA NOLAKOA DEN

Galdak eta guztiak osoki grabatuak izan dira. 4.200 ordu denetara.

Zinta magnetikoak denborarekin higatzen eta eduki informatikoa galtzen baitute altxorra segurtatzeko, grabaketa guztiak digitalizatu dira eta iraupen luzeko CD-ROMetan jarri (100 urteko garantia dute disko horiek).

— 2 bertsio egin dira CD-ROMetan:

- *Altxor bertsioa*: Soinu maiztasun guztiak atxikitzen ditu digitalizazioan eta, beraz, kalitate handikoa da Toki asko hartzen du, ordean, zinta analogiko bezainbat disko behar baita: 2600 soinu-CD-ROM dira bertsio horretan.

- *Lan egiteko bertsioa*: Kopia horretan, entzuketa arruntentzat beharrezko diren soinu maiztasunak baizik ez dira gordetzen. Ez da bestea bezain kalitate onekoa, baina haren bidez herri bateko grabaketa guztiak gehienez ere bi diskotan eman daitezke. Oso

erabilgarria da, beraz. Denetara 180 bat soinu-CD-ROMetan sartzen dira grabaketa guztiak. Kopia hauek ikertzaileek kontsultatzen ahalko dituzte Euskaltzaindiaren bibliotekan.

INFORMATIZATZEA

Haste-hastetik izan zen informatizatzeko xedea.

3 urratsetah eman da informatikako programaketa:

— 1. urratsa: datu sarrerako programa (herrika pentsatua): 1989-90etan egin zen.

— 2. urratsa: datu basea baliagarri egitea kontsulta lanetarako (herrien arteko datuen gurutzaketa, galderen arabera bereziki, ahalbideratzen duena). 1996ko lehen urte erdian egin da.

— 3. urratsa: datu elaboraketa (kartografia barne): 1996ko bigarren urte erdian egin da.

Eusko Jaurlaritzako Informatika Erakundeak (EJIE) egin du 1. urratseko programaketa.

2. eta 3. urratsetako programaketa Aurten Bai fondazioak egiten du aurten (datu base zaharra eguneratuz denbora berean, zeren azken 6 urteetan guztiz kanbiatu baitira informatikako bitartekoak).

Gaurko aurkezpena 2. urratsari dagokion ondorioa da:

Datozen hilabeteetan, informatikako 3. urratsa eman ondoren, hasiko da basean sartutako datuen elaboraketa lana.

Elaboraketako lanaren ondorioa bi moldetan agertuko da:

— Atlas liburuetan

— Informatikako euskarrietan

Liburuetan mapak agertuko dira gehienbat, baina gaineratiko informazioa ez da haietan eskaintzen ahalko.

Euskarri informatikoetan aurkitzen ahalko da informazio guztia erabilbide simple eta azkar batekin. Bukaerdu datu guztiak CD-ROM bakar batean sartzen ahalko dira.

ATLASAREN BABESLEAK

Lankideen aldetik izandako gastuak (4 lanpostu oso azken urteetan) eta funtzio-namendukoak Euskaltzaindiaren aurrekontu orokorretan sartuak dira.

Halere, aurtengo informatika eguneraketak diru iturri bereziak eskatzen baitzituen tresneria kanbiatzeko eta programa bereziak egiteko, beste laguntza batzuk jasotzea aurtengo, dela Europako Batasunaren aldetik, dela Akitaniaren partetik.

BIZKAIKO FORU DIPUTAZIOAN, EHHAREN CD-ROM AURKEZPENA

1996-06-27

*Andoni Unzalu,
Aurten Bai fundazioko burua*

Ni oso laburra izaten saiatuko naiz behintzat, nahi diot erantzun gure Euskaltzaindiko buruari ez duela zertan eskerrik eman *Aurten Bai* fundazioari egin duen lanagatik beti izango duelako alboan Euskaltzaindiak nahi duenarako lankide eta ahal duen neurrian laguntza. Bestalde, guri dagokigu eskerrak ematea Euskaltzaindiak gudan jarri duen konfidantzagatik, honelako lan bat teknologia berriekin inoiz egin ez dela egiteko ausardia izan dugu, eta egiteko ausardia izan du Euskaltzaindiak, gure esku lan hori uzteko eta berriz ere gudan jarri izan du konfidantza Beñatek orain esan berri duen gisan. Datuen informatizazio guztia era *Aurten Bai* fundazioaren eskuetan dago eta berriz eskerrak eman behar ditut Euskaltzaindiak gudan horretarako ere jarri duen konfidantzagatik eta zuek orain ikusiko duzue ze punturaino bete dugun Euskaltzaindiak gudan jarri duen konfidantza eta agindua. Beraz, beste barik, jarriko ditugu bi zatitxo CD-ROM honetan grabatuta daudenak, honelako 4.200 CD-ROM dira, guztiak ezin izan ditugu ekarri, baina adierazteko bakar bat nahiko da, guztiak dute Euskaltzaindiaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra grabaturik, horiek izan direlako, bata, jabea eta bestea, laguntzailea, eta aukeratu ditugu bi herri, 4.200 ordu izanik, bi aukeratu ditugu, bata, Errigoiti, eta bestea Orexa, apur bat entzun dezazuen, apur bat puntarik puntako herriak direnak, elkarren ondoan ez daudenak eta ikus ezazue labur-labur, minutu bi edo izango da bakoitzetik eta entzungo dugu orain inkestagileak etxera joanik, baserrira joanik, sarritan txakur ahausia entzunik grabatu zuena zintan eta gaur egun, orain, CD-ROMean daukaguna. Beste barik beraz, entzun egingo dugu Errigoitiko zatitxo bat.

Sarritan gertatzen ohi den moduan lehengo baten egon nintzen eta beti informatika munduan demoen birusa dagoela eta berriz kopiatuko dugu. Orain entzungo ditugu bi zatiak, bakarrik azpimarratu nahi nuke, ni ere harriturik gelditu naizelako, zein lan egin nahi izan duen Euskaltzaindiak ordu guzti horiek egiteko, kontuan har ezazue langile batek bere lanean ordu osoa eten gabe egongo balitz, hiru urte beharko lituzkeela Euskaltzaindiak grabatu duen haina denbora grabatu ahal izateko eta batzuetan, Gotzonek hobeto azaldu ahalko du kargatzen den bitartean, ia amaitzen dutenean, ia datu guztiak sartzen direnean, ia milioi bat erantzun desberdin egongo direla galdetegian aztertzeke eta konporatzeko herri batetik bestera, ze alde dagoen eta zein aberatsak diren Euskal Herriko euskalki, azpieuskalki eta dauden hizkera guztiak. Beraz, ondo baderitzo ordenagailuari, entzungo ditugu bi zatiak.

* * *

Orain entzungo dugu beste zatitxo bat, ikusten duzue nola hain garbi ikusten den bertako euskara eta euskalkia zelakoa den eta orain Orexako zintarekin.

Txondorrei buruz ari da, ikatza egiteko mendietako txondorrek nolakoak ziren.

Honenbestez utziko dugu hau, baina pentsa ezazue ba azalduko dugula hor entzundako guztia nola kodifikatu.

EHHako APLIKAZIO INFORMATIKOAREN AURKEZPENA

1996-06-27

G. Aurrekoetxea

Euskaltzaindiak, aspaldi amesten zuen eta ez gutxi itxaroten zuen, EHHako datuen argitalpenari ekin ahal izan dio azkenik.

Horretarako egin den lehen lana herrika edo inkestaka streamer eta disketetan gordetzen ziren datu informatizatuak datu-base bakar batean ipintzea izan da.

Ondorengo urratsa datu-base hori Windows ingurunera bihurtu da. Une honetan datu erdiak informatizaturik daude, ez denak. Falta diren datuak informatizatuz doazen neurrian sartuko dira. Hemen erakutsiko diren programa eta datuak lan-tresna dira, esan gura da, datu-basearen egitura ondu gabea, umotu gabea dela, batetik. Bestetik, datuak curak ere ez daude onduta, elaboratuta, orraztuta. Argitaratze bidean datu-basea egokitu eta indartu egingo da; datuak atondu eta interpretazio kartografikoa egin; baina gero-koak gerorako utziz ikus dezagun zertan datzan datu-basea:

A) DATU-BASEAREN EGITURA

Datuak bi eratara kontsulta daitezke une honetan: herrika edo galderaka.

1. Herria aukeratuz

*Herri*tik sartzten bagara bi aukera berri agertzen zaigu: edo alfabetikoki eratuta da-
goen herrien zerrendan begiratu, edo herriaren kodea jarri. Eman dezagun 712 herriko
datuak aztertu gura direla.

Programak erakusten duen lehen pantaila herri horretan jaso diren erantzunen ze-
rrenda da. Informazioa zutabe desberdinetan sailkaturik bistaratzen zaigu: ezkerretik le-
henengo zutabearen itaunaren kodea eta galdetzen denaren berba agertarazten du (gaz-
teleraz). **Lekukoaren** kodea, erantzunaren **sekuentzia**, zein **testuingurutan** jaso den
berba, aurkitu den **berba** edo **hitza** alfabeto fonetikoan (hizkuntz atlasen ohiturak ja-
rraituz), berba horren inguruko **ezaugarriak** kodaturik (bigarren pantailan lehengoia
naturalean agertuko direnak), jaso den berba hori **erantzuna**, edo lekukoak bere kaxa
emana den ala **proposamena** edo lekukoari inkestagileak proposatu dion adierazten
duena; proposamenetan kasuistika handia biltzen du EHHAK; lekukoak hitzari buruz
ñabarduraren bat azaltzen duenean alor honetan agertuko da (bigarren pantailan lengoia

naturalean); eta azkenik, alfabeto fonetikoaz dagoen berba alfabeto normatibora egindako transliterazioa; proposamenetan proposatutako berba lekukoak ezagutzen ez duenean proposatutako hori zein den agertuko da.

Gure aurrikuspenetan erantzun bat baino gehiagoren aukera ez zen baztertzten. Itaun batek jaso ditzakeen erantzun desberdinak batetik eta itaun desberdinen erantzunak marra gorriak bereizten ditu.

Erantzunei so egiteko aurrera-atzera egin daiteke, pausoka, multzoka, saltoka edo itaun jakin batera joanez. Orduan **galdera** botoia sakatu beharko dugu. Bi aukera: edo **gaia** eta **galdera** aurkeratu, edo **kodea** eman. Eman dezagun **landaretzari** (la vegetación) buruz zer itaundu den gura dugula ikusi eta “**árbol**” (19010) hitza euskaraz zelan agertzen den.

Erantzun jakin bat zehatzago aztertu gura izanez gero erantzun horren gainean klistatu eta 2. pantailara sartzen da. Alor zeharo desberdinak ikusten dira pantaila honetan: lau alor nagusi: aurkibidea, erantzun-proposamenak eta oharrak. Goitik eta ezkerretik hasiz:

1.1. *Aurkibidea* alorrean ondoko zehaztasunak bildu dira: herria eta kodea, galdera (bi hizkuntzetan) eta galdera kodea, datua jaso duen inkestagilea (INK1 eta INK2), datuaren transkribatzailea (TRA), eta zein zintetan jaso den (honen alderdia eta bira).

1.2. *Erantzunak- proposamenak* alorrean sekuentzia, bilatzen den berba eta berba horri buruz oharrak dagoen ala ez.

Gura den erantzun edo proposamenean klikatzen bada xehetasunak agertuko dira: **hizkuntz ezaugarriak** piztuko dira eta oharra irekiko da. Hizkuntz ezaugarrietan: eza-gutza maila (proposamenetako taula), elokuzioa, fiabilitatea, kategoria gramatikala, transkribapenaren fiabilitatea eta baieztaketa deitzen diren alorrak beteko dira.

Bada oraindik gehiago. EHHAK bereziki itauntzen ez duen baina interesa duen hitzen bat agertzen denean berba hori fonetikoki transkribatzen da eta “osagarriak” deitzen den alor berezian kokatzen, hitz horri buruzko xehetasun eta guzti (izan dadin definizioa, azalpena, perifrasi...). Lekukoaren kodea eta izena ere agertzen da, pantaila honetan ikus daitekeenez.

Oraingoz jarri diren tresnen artean, aurrerago gehiagorekin hornitzeko esperantzan, inprimatzeko aukera daukagu. Bai herri jakin bateko erantzunak edo herri desberdinetakoak.

2. Galderatik sartuta

Galderatik sartuz gero aukera desberdinak ditugu: lehen aukera kontsultaren hizkuntzarena da; oraingoz bi hizkuntzatan kontsulta daiteke: gazteleraz ala frantsesez. Hizkuntza aukeratu ostean **gaia** (La vegetación/ landaretxa) aukeratu daiteke eta gai horren barruan galdera bat. Edo zuzenean **galderak** (árbol) hautatuz (alfabetoaren araberak aurkituko dira). Bada galderaren **kodea** (19010) aukera ere.

Erantzunen zerrenda herrika agertuko da. Herri jakin batera joatea gura bada sakatu tekla eta artez joango gara. Eta hemen aurrerago aipatu moduan aztertu edo ikusi ahal izango dugu.

B) INFORMAZIOA

Datuen egitura honek EHHak bildutako informazio aberatsa modu egokian sailkatzea ahalbidetzen du. Baina, zer bildu du egitasmo honek?

B1. Informazio-kopuru batzuk hasteko: aurkezten dizuegun programa honetan egitasmoan bildu diren datuen % 37a agertzen da: (1068 itaun, guztira 2857 dira).

— Erantzunak: 339.332 erantzun-lokalizazio lortu dira (batazbeste erantzun bi eta piku itauneko); estrapolazio bat eginda, egitasmoak guztira 900.000 item-erantzunen berri emango du.

Gehitu behar zaizkio 42.234 (osagarri) berba-lokalizazio (ez dira denak berba diferenteak) aurrez finkatutako galdesortan itauntzen ez direnak, baina interesgarri direlako jaso eta fonetikoki transkribatu direnak;

— Oharrak: 346.018 ohar jaso dira lehen bi ataletan.

Egitasmoaren ihardueran datuen zehaztasuna eta zuzentasuna izan dira garrantzitsuenak.

B2. Nolako informazioa edo informazio mota

1. Inkestaren osotasuna eta aberastasuna

Mendaron adibidez “árbol” gaztelerazkoaren kideztat *arbolá* eta *ondósko* jaso da. Ez du, halere, “zugaitz” berba esan eta inkestagileak proposatu egiten dio ia herrian erabiltzen den itaunduz. Lekukoak hitz honen adiera zehatza ematen dio eta ohar baten bidez jasotzen da. Forma fonetikoa ere jaso du.

Baina azken hau ez zaio arrunta iruditu eta inkestaren beste pasarte batean berriro proposatu zaio berba bera nola ahoskatzen duen zehazteko. Bide horri etengabe lotu gataizkio euskal herrietan barrena inkestetan zehar.

Hemen ikus daitekeenez, hizkuntza standarra eta herri mailakoa ez datoz beti bat.

2. Inkestagilearen ahaleginak

Une edo galdera batzuetan inkestagileak ahalegin berezia egin behar du informazioa lortzeko. Kasu lekukoak erantzuntzat “erdarakada” bat ematen duenean. 01250 itaunean (mariposa) Zollon (103) *mariposa* berba jaso da erantzun moduan. Inkestagilea ez da pozik gelditu eta 8 berba proposatu dizkio lekukoari (bitxilote, ezkabi, marisorgin, mitxeleta, pertxilota, sorginbitxi, txalupitxi eta txilipitaina); kasu honetan alferrik izan da. Etxebarrin (107) ahalegin bertsua egin da, baina fruituarekin.

3. Erantzunen ugaritasunak arazoak sortzen

Behin baino gehiagotan gertatzen da ekintza baterako edo gauza bat izendatzeko berba bat baino gehiago erabiltzea, izan dadila graduazio bat medio, izan dadila kutsu

morala bitarte. 09030 (devastar) galderan *kaskabarrak* edo *harriak* edo *baazuzak* (*txingorra* edo *inetasi* edo *txixerrak* baino handiagoak) zer egiten duen galdetuz Zolloko inkestan (103) bi erantzun eta lau proposamen onartu ditu lekukoak. Ezkio-Itsason (314) lau erantzun, Zestoan (315) hiru erantzun eta proposamen bat.

Ez noa gehiago luzatzera zuek aspertuko zaituedan beldurrez. Baina ez nuke amaitu gura Aurten Bai fundazioari eta ABA Multimediako jendeari gure eskerrak emon barik izan duten jarrera eta sentsibilitateagatik.

Eskerrik asko.